

HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

2025eko ABENDUAREN 11

Kontseilarien kopurua	15	Bi mila eta hogeita bosgarren urtean, abenduaren hamaikan, arratseko zortzi eta erdietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, jaun auzapezak deiturik. Dei hori 2025eko abenduaren 02an afixatua izan zen eta 2025eko abenduaren 02an posta elektronikoz igorria. Antton CURUTCHARRY bilkuraburu zen.
Hor zirenak	14	
Bozkatzaileak	15	

Hor zirenak: ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Betti jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna eta OLÇOMENDY Betti jauna

Ahalordea(k): MOUSQUES Bernadette andereak ahalordea emana zakon HARISTOY Marie-Agnès andereari, ITHURBURUA Daniel jaunak BIDART Betti jaunari.

Falta zirenak: MOUSQUES Bernadette anderea, ITHURBURUA Daniel jauna

Bilkurako idazkaria izendatu da: BIBES Jean Paul jauna

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea:

Aipagaiak

- Aurrekontu nagusiari buruzko 3. aldaketa erabakia: Kreditu biramendua kanpalekuaren aurrekontu gehigarriari buruz
- Inbestimendu gastuen ordaintzea aurrekontua bozkatu aitzin
- Herriaren parte hartzea eskola funtzionamendu gastuetan (eskolako prezio finkoa)
- TKAPri dei egitea Eiheraldeko piszikulturako zubiaren berritzeari buruzko ikerketa egiteko
- TISE galdea Eiheraldeko zubirako
- ENEDISekin hitzarmena sareak pasatzeko
- Herriarteko "Txakurrak" zakurtegiari kidezea
- Lur trukaketa partikular (Banka) eta Baigorri Ibarreko Mendi Elkargoaren artean
- EB-MerCoSur akordioaren berrestearen kontrako manifestuaren izenpetzea
- Zerbitzu Publikoko Ordezkaritza kontratua Euskal Elkargoko Tokiko Sozietate Publikoarekin bero-sarerako (Pujo eskola-kolegioa, trinketa eta bizitegia, igerilekua, eskubaloi gela)
- Gai orotarik

0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2025eko urriaren 23ko bilkuraren bilduma onartu du.

1- 2025-60 DELIBEROA- AURREKONTU NAGUSIARI BURUZKO 3. ALDAKETA ERABAKIA – 7.1 NOMENKLATURA

Auzapezak oroitarazi dio Herriko Kontseiluari aldagetak egin behar direla herriko kanpalekuaren aurrekontuan.

2025eko ABENDUAREN 11ko bilduma

Jaun auzapezak aldaketa hauek proposatu ditu:

GASTUAK		IRABAZIAK	
Artikulua-operazioa	Zenbatekoa	Artikulua-operazioa	Zenbatekoa
61521- Eraikin publikoak	- 5 000.00		
6215 – langileak	+ 5 000.00		
GASTUAK OROTARA	0.00		

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta luzaz deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak

ONARTU ditu aurrekontuari egin aldaketak, gorago aipatutakoaren arabera

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

2-2025-61. DELIBEROA- INBESTIMENDU GASTUEN ORDAINTzea AURREKONTU NAGUSIA BOZKATU AITZIN- 7.1 NOMENKLATURA

Auzapezak biltzarrari oroitarazi dio Lurralde Elkargoen Kode Nagusiko L. 1612-1 artikulua arabera, Herriko Kontseiluak baimena emanik, auzapezak inbestimendu gastuak abiatzen eta kitatzen ahal dituela eta mandatua eman, aitzineko kontualdian ireki maileguen laurdenaren neurrian,

Hots: **495 675.96 €**. Baimen hori beharrezkoa da urte hastapenean Herriak aurrekontua bozkatu aitzin inbestimendu gastuei buru egin behar dielarik.

Auzapezak biltzarrari jakinarazi dio beharrezko inbestimendu gastuak hauek direla:

- 196. op: Bero-ponpa Larrazkena zahar-etxean: 100 000€
- 209. op: MAILUXENEA etxearen erostea: 110 000 €

Zehaztu du dagozkion kredituak aurrekontuan idatziko direla.

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

BAIMENA eman dio auzapezari inbestimendu gastuak abiatzeko eta kitatzeko eta mandatua emateko, aitzineko kontualdian ireki maileguen laurdenaren neurrian, operazio hauetarako:

196. operazioa: Bero-ponpa Larrazkena zahar-etxean: 100 000 € 2132 kontuan

209. operazioa: MAILUXENEA etxearen erostea, 110 000 € 2138 kontuan

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

2025eko ABENDUAREN 11ko bilduma

ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

3- 2025-62. DELIBEROA HERRIAREN PARTE HARTZEA DONOSTEI ESKOLA PUBLIKOAREN FUNTZIONAMENDU GASTUETAN - ESKOLATZE PREZIO FINKOAREN FINKATZEA -7.5 NOMENKLATURA

Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio 1992ko buruilaren 29ko deliberaren bidez erabaki zela funtzionamendu gastuetan parte hartzea Baigorri bizi diren ikasleentzat bakarrik.

Jaun auzapezak oroitarazi du 2014ko maiatzaren 2ko zirkularra: zehazten ditu prezio finkoa finkatzeko kontuan hartzen diren funtzionamendu gastuak.

Jaun auzapezak zehaztu du 2024-2025 urterako prezio finkoa **33 159.59 €-koa** dela.

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta luzaz deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak

DELIBERATU du eskolatze prezio finkoaren onartzea, hots, **33 159.59 €**

ZEHAZTU du froga taula bat gehituko zaiola parte hartze horren ordainketari.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

4- 2025-63. DELIBEROA Herriaren PARTE HARTZEA BAIGORRIKO AMA IKASTOLAREN FUNTZIONAMENDU GASTUETAN - ESKOLATZE PREZIO FINKOAREN FINKATZEA – 7.5 NOMENKLATURA

Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio 2008ko maiatzaren 31ko deliberaren bidez erabaki zela funtzionamendu gastuetan parte hartzea Baigorri bizi diren ikasleentzat bakarrik.

Jaun auzapezak oroitarazi du 2014ko maiatzaren 2ko zirkularra: zehazten ditu prezio finkoa finkatzeko kontuan hartzen diren funtzionamendu gastuak.

Jaun auzapezak zehaztu du 2024-2025 urterako prezio finkoa **37 681.35 €-koa** dela.

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta luzaz deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak

DELIBERATU du eskolatze prezio finkoaren onartzea, hots, **37 681.35 €**

ZEHAZTU du froga taula bat gehituko zaiola parte hartze horren ordainketari.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

6-2025-64. DELIBEROA - TOKIKO KUDEAKETARAKO AGENTZIA PUBLIKOARI DEI EGITEA EIHERALDEKO ZUBIAREN BERRITZEARI BURUZKO IKERKETA EGITEKO – 1.4 NOMENKLATURA

Auzapezak biltzarrari oroitarazi dio berritze obrak egitea beharrezkoa dela Eiheralde OA2 zubian.

Horretarako, proposatu du Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoaren Herriarteko Errepide, Sare eta Antolaketa Zerbitzuari administrazio eta teknika laguntza misio bat egiteko ardura ematea.

Jaun auzapezak zehaztu du horretarako Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoarekin hitzarmen bat egin behar dela, eta hitzarmen horren proiektua biltzarrari aurkeztu dio, sinatzeko baimena galdatuz.

Herriko Kontseiluak,

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta luzaz deliberatu ondoan,

Kontuan harturik Herriko Etxea ez dela gai dosier horren ardura hartzeko, baina Herriarteko Errepide, Sare eta Antolaketa Zerbitzua erabil dezakeela kide diren beste elkargoekin denbora partekatuz,

ERABAKI du Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoaren Herriarteko Errepide, Sare eta Antolaketa Zerbitzuari dei egitea administrazio eta teknika laguntza eman dezan Eiheraldeko OA2 zubiaren berritze obrak egiteko, atxikirik den hitzarmen proiektuaren arabera.

BAIMENA eman dio auzapezari hitzarmena izenpetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

7-2025-65. DELIBEROA – 2. ARTE EGITURAREN KONPONTZEA – DIRULAGUNTZA GALDEA – 7.5 NOMENKLATURA

Auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio 2025ean egin ikuskaritza zehatzak erakutsi zuela obrak egin behar direla 2. arte egituraren eta zaharberritze proiektua aurkeztu du.

Gehitu du dirulaguntza dosierra apailatu dela eta operazioaren gastu orokorra **300 106,00 €-tan (BEZa gabe)** estimatu dela.

Orain Estatuari, Departamenduari eta beste partaide instituzional orori dei egin behar zaie operazio mota horretarako dirulaguntzak galdegiteko.

Kontseiluak, dosierrari so egin ondoan, auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta luzaz deliberatu ondoan,

DELIBERATU du - proiektua eta aurreikusi finantzamendua onartzea (ikus beherago)

- Estatuari, Departamenduari eta beste partaide instituzional orori dei egitea operazio mota horretarako dirulaguntzak galdegiteko.

ZEHAZTU du operazio horren finantzamendua funts librean egin daitekeela osagarri gisa.

GASTU MOTAK Zuzenki proiektuari lotuak	Gastuen zenbatekoa (BEZa gabe)	IRABAZIAK	Zenbatekoa	Zehaztu galdatu ala ukan den	%
---	--------------------------------------	-----------	------------	------------------------------------	---

Hautagarri diren lur-funts eskuratzea	
Lur-funts eskuratzeen subtotala	0,00 €
Ikerketak eta orotariko ordainsariak	
Ikerketak: LURO	15 090,00 €
Administrazio eta teknika laguntza SIVRA TKAP	7 416,00 €
Orotariko ordainsariak	
- Geometraren planoak (estimazioa)	2 000,00 €
- ikerketa geoteknikoak (estimazioa)	2 000,00 €
Ikerketen/Ordainsarien subtotala	26 506,00 €
Obrak ¹	
Egituren berritzeko obrak	247 600,00 €
Irazgaiztasun obrak	26 000,00 €
Obren subtotala	273 600,00 €
Beste gastuak	
Beste gastuen subtotala	0,00 €
OROTARA⁴	300 106,00 €

Laguntza publikoak			
Estatua (beherago zehaztekoa):			
- TISE	60 021,20 €	galdatua	% 20,00
- ZPN	180 063,60 €	Galdatuko da	% 60,00
			% 0,00
			% 0,00
Eskualdeko Kontseilua			% 0,00
Departamendu Kontseilua			% 0,00
Beste kolektibitateak (laguntza funtsak,...) ³			% 0,00
Europar funtsak			% 0,00
Beste laguntza publikoak			% 0,00
-			% 0,00
			% 0,00
Laguntza publikoen subtotala	240 084,80 €		% 80,00
Publikoak ez diren beste laguntzak			
zehaztekoa			
Subtotala:	0,00 €		

AUTOFINANZAMENDUA			
Diru propioa	60 021,20 €		
Maileguak			
finantziazio errentamendua			
Beste ³			
Subtotala:	60 021,20 €		
OROTARA⁴	300 106,00 €		

Kargutan diren kideen kopurua: 15
 Hor ziren kideen kopurua: 14
 Bozkatu dutenen kopurua: 15
 ALDE: 15
 KONTRA: /
 ABSTENTZIOAK: /

8- 2025-66 DELIBEROA - ENEDISekin HITZARMENA SAREAK PASATZEKO – 9.1 NOMENKLATURA

Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio beharrezkoa dela menpekotasun-hitzarmen bat finkatzea Enedisekin 400 volteko linea elektriko bat iragateko AB 0367,0164 eta 0085 lursailetan.

Jaun auzapezak oroitarazi du 3 m zabaleko zerrenda batean lurpeko 2 hodi ezarriko direla 90 m-ko luzeran.

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta luzaz deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak

BAIMENA eman dio Jaun auzapezari ENEDISekin menpekotasun-hitzarmena eta atxikirik den mapa izenpetzeko

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

9- 2025-67. DELIBEROA – TXAKURRAK ZAKURTEGIARI KIDETZEA ETA HITZARMENAREN IZENPETZEA – 9.1 NOMENKLATURA

Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio beharrezkoa dela herria Txakurrak zakurtegiari kidetuetan dadin.

Jaun auzapezak irakurri du Txakurrak zakurtegiaren araudia eta zehaztu du finantza parte hartzea honela kalkulatu dela: **1.50 € / biztanleko**.

Jaun auzapezak proposatu du Txakurrak zakurtegiari kidetzea 2026ko urtarrilaren 1etik goiti.

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta luzaz deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak

DELIBERATU du Txakurrak zakurtegiari kidetzea 2026ko urtarrilaren 1etik goiti.

ARDURA EMAN dio jaun auzapezari urrats guzien betetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

10-2025-68 DELIBEROA - LUR TRUKAKETA BATEN ONARTZEA – 9.1 NOMENKLATURA

Auzapezak Herriko Kontseiluari irakurri dio Baigorri Ibarreko Mendi Elkargoaren deliberoa, Sébastien LEMERCIER jaunaren, MARTINEZ jaunaren eta Mendi Elkargoaren arteko lur trukaketari buruz.

Lursail horiek Bankako herrian dira, kadastrako E 609 eta E 645ean. Geometraren gastuak LEMERCIER jaunak ordainduko ditu

2025eko ABENDUAREN 11ko bilduma

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta luzaz deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak

ONARTU du Mendi Elkargoaren deliberoa, lursail horien trukaketari buruzkoa

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

10- 2025-69 DELIBEROA - EB-MerCoSur AKORDIOAREN BERRESTEAREN KONTRAKO MANIFESTUAREN IZENPETZEA – 9.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio Europako Batzordeak EBko Kontseiluari proposatu EB-MERCOSUR merkataritza-akordioa **arrisku larria dela Europako, Frantziako eta Euskal Herriko laborantza-merkaturako, laborantzako merkataritza-defizit negatiboa baitu.**

Bereziki, behi, ezti eta hegazti-sailak arriskuan daude konkurrentzia desleial batengatik, Latinoamerikako ekoizpen-kostuak Europakoak baino anitzez apalagoak baitira (adibidez, Brasilgo gutieneko soldata 1 eurokoa baino guttiagokoa da oreneko, Frantziakoa kasik 10 eurokoa delarik). Eman kuotak Europako kontsumoaren % 1 eta % 2 artekoak dira, eta horrek dagozkien sailen ekonomia errotik kordokaraziko luke. Ipar Euskal Herrian jadanik ari gara merkataritza askearen ondorioen pairatzen, Zeelanda Berriarekin izenpetu akordioarekin, ardi-sailean (bildotsak) eragin handia baitu.

Mercosurren berresteak eragin handia luke gure lurraldeko laborarien gainean, jadanik egoera ekonomiko zailean baita, behin eta berriz agertzen diren osasun eta klima arriskugarritasunen menpe baita.

Jaun auzapezak proposatu du EB-MERCOSUR hitzarmenaren berrestearen kontrako manifestua sinatzea.

Kontuan harturik,

EB-MERCOSUR merkataritza aske hitzarmena arrisku handia dela Europako, Frantziako eta Euskal Herriko laborantza merkaturako, merkataritza defizit negatiboarekin.

EB-MERCOSUR merkataritza aske hitzarmenak konkurrentzia desleiala erakusten duela eta dagozkien laborantza sailak errotik kordokaraziko lituzkeela (bereziki Ipar Euskal Herriko behi, hegazti eta ezti sailetan). Latinoamerikako ekoizpen gastuak Europakoak baino askoz apalagoak dira.

Europako Batzordeak proposatu babes-klausulak geriza baizik ez dira eta ez dute konkurrentzia desleiala geldituko. Klausula horiek aldian aldikoak dira eta denboran mugatuak, ez dute inportazioen gorakada eta ekoizpenen deslokalizazioa dudatan ezartzen.

Merkataritza askeko hitzarmenek prezioak apalarazten dituzte, Europako laborariek biziki irabazi apalak dituzten testuinguruan.

EB-MERCOSUR merkataritza askeko hitzarmenak ingurumen-arauak beherantz presionatuko ditu, bioaniztasuna eta ekosistemak jadanik biziki hauskortuak direlarik giza jarduerengatik.

Mundu osoko klima nahasmenduaren testuinguruan, funtsezkoa da bertan elikagai sanoak ekoizten dituzten laborarien atxikitzea.

Laborariek aktiboki parte hartzen dute landa-bizitzan eta zaindu behar den eginkizun soziala dute.

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta luzaz deliberatu ondoan, Herriko Kontseilua,

Frantziako Errepublikako lehendakariak Europako Batzordeak Europar Batasuneko Kontseiluari proposatu EB-Mercosur akordioa berrestearen **KONTRA ALTXATZEN DA** fermuki.

Dei egiten dio Frantziako Errepublikako lehendakariari eta Europako diputatuei hitzarmenaren berrestea blokatzeko

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

11-2025-70 DELIBEROA - BAIGORRIN BEROTZE SARE BATEN SORTZEA ETA USTIATZEA (ENERGIA BERRIZTAGARRIA) – ZPO KONTRATUAREN IZENPETZEA IPAR EUSKAL HERRIKO ANTOLAKETA – TSPekin – 5.7 NOMENKLATURA

Egingarritasun-ikerketa baten ondotik, Baigorriko Herriko Etxeak zura-energia berotze-sarea sortzeko eta ustiatzeko xedea du.

2024ko azaroaren 5eko delibero bidez, Herriko Kontseiluak onartu zuen Zerbitzu Publikoko Ordezkaritza baten erabiltzeko printzipioa Ipar Euskal Herriko Antolaketa TSPekin bere lurraldean bero berriztagarri sare bat sortzeko, ustiatzeko eta kudeatzeko.

Euskal Herriko Antolaketa TSPk herriari Zerbitzu Publikoko Ordezkaritza kontratu bat proposatu dio.

Hainbat trukaketaren ondotik, alde bateko ZPO kontratu proiektu bat izenpetzea proposatu zaio Herriko Etxeari (ikus eranskinetan).

Kontratuan deskribatu bezala, Herriko Etxeak (**Esku uzten duen aginpidea**) TSPren (**Kontzesio hartzailea**) esku uzten dituen zerbitzuak hauek dira:

- Egituren finantzamendua eta eraikuntza:
 - o Berotze ekoizpena;
 - o Berotze hedapenerako eta banaketarako;
- Egituren eraikitze eta ustiatzeko behar diren administrazio-baimen guziak kausitzea;
- Dirulaguntzak galdatzeko dosierrak muntatzea eta kausitu dirulaguntzak integratzea;
- Zerbitzua osatzen duten egitura guziak ustiatzea, mantentzea eta berritzea;
- Emaizta eta zerbitzu kalitate xedeen finkatzea eta horiekiko engaiamendua;
- Merkataritza-kudeaketa, arrisku guziak bere gain;
- Berotasuna abonatuei hornitzea eta abonamendu-kontratuen izenpetzea;
- Dagokienei jakinaraztea kontzesio denbora guzian;
- Kontrol eta gaztigu moldeak;
- Kontzesioaren kudeaketaren gardentasuna.

Kontratua indarrean sartuko da Herriak Euskal Herriko Antolaketa TSPri jakinarazten dion egunean, 25 urterako (ondasunen amortizazio epea) sarea martxan ezartzen den egunetik goiti.

Kontratu bukaeran, ustiapenaren funtzionamendurako beharrezkoak diren ondasunak Esku uzten duen aginpideari utziko zaizkio. Ondasunak Esku uzten duen aginpideak ere gibelera har ditzake ordainsari baten trukean. Horretarako, ondasunen zerrenda bat igortzen zaio urtero Esku uzten duen aginpideari.

Kontzesio hartzailea engaiatzen da:

- Ingurumenaren alde (erabiltzaileei hornitu beroa % 85ean energia berriztagarrietatik eta berreskuratuetatik (EnR&R) dator bana besteko kontratu denboran);
- Energia horniduraren alde;
- Eman zerbitzuaren kalitatearen alde;

- Kontzesioaren kudeaketaren gardentasunaren alde. Horrela, kontratuaren denbora guzian, Kontsezio Hartzaileak urtero teknika, ingurumen eta finantza txosten bat eman behar dio esku uzten duen aginpideari.

Herriko Kontseiluak,

Energia aurrezteko eta beroa erabiltzeko 1980ko uztailaren 15eko 80-531. legea ikusirik,

Lurralde Elkargoen Kode Nagusiaren arabera, eta bereziki L.2224-38, L.2121-29 eta L.1411-1 artikulua eta ondokoen arabera,

Eskaera Publikoaren Kodea ikusirik eta bereziki kontzesioei buruzko hirugarren parte,

Lurralde Batzorde Sozialaren 2024ko ekainaren 27ko aldeko iritzia ikusirik,

2024ko azaroaren 5eko deliberazioa ikusirik, kudeaketa moldeak onartzen baitu berotze energia berriztagarri sare baten sortzeko eta ustiatzeko Baigorriko herrian;

Ipar Euskal Herria Antolaketa TSPren estatutuak kontuan harturik, bereziki 3. artikulua – Helburu Soziala, zeinak berotze energia berriztagarri sare bat sortzeko, ustiatzeko eta kudeatzeko eskumena ematen baitio;

Kontuan harturik Herriko Etxeak erabaki duela berotze energia berriztagarri sare bat bere lurraldean sortzeko, ustiatzeko eta kudeatzeko eskumena Ipar Euskal Herriko Antolaketa TSPri ematea;

Kontuan harturik kudeaketa hori, Eskaera Publikoaren Kodearen L.2511-1 eta L.3211-1 artikuluen arabera, kasik zuzeneko kudeaketa kontratu baten kariatara egin daitekeela konkurrentzian ezarri gabe;

Kontuan harturik Zerbitzu Publikoko Ordezkaritza kontratu proiektua eta haren eranskinak herri kontseilari guzietan igorri zaizkiela eta delibero honi loturik direla;

Deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak:

- **ONARTU** du Zerbitzu Publikoko Ordezkaritza kontratua eta delibero honi lotu dokumentu gehigarriak;
- **BAIMENA eman dio** jaun auzapezari edo haren ordezkari Zerbitzu Publikoko Ordezkaritza kontratua izenpetzea Ipar Euskal Herriko Antolaketa TSPren baita ere honen betetzeko beharrezkoak diren agiri guziaz.

Loturik:

- Baigorri herriaren eta Ipar Euskal Herriko Antolaketa TSPren arteko Zerbitzu Publikoko Ordezkaritza kontratua.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA:

Kredituen biramendua 2025/12/04an.

Gai orotarik

!

2025eko ABENDUAREN 11ko bilduma

Hor zirenen zerrenda:

ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Pierre, Betti, jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxo jauna, MOUSQUES Bernadette anderea eta OLÇOMENDY Betti jauna.

Bilkuran hartu deliberoak 60tik 70era zenbakituak ziren.

<u>Auzapezaren izenpedura:</u>	<u>Bilkurako idazkariaren izendatzea:</u>